

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Sedukzioaz.
Anger.
Musikherria.
Iraupena: 39'11".

Arrosak edertasunean arantzak ere baditu

ARRASATEKO laukoteak gazte-gaztetatik oso argi zuen taldea ez zela inoiz helburua izango, beraien barrenak husteko erreminta baizik. Metal kutsuko doinu gogorrek lantzen hasi ziren, eta poliki-poliki bestelako sonoritateetan murgildu ziren. Orain dela hiruzpalau urte kaleratutako *Biluztu* diskoarekin melodiaren eta indarraren arteko oreka borobila lortu eta hitzekin kritika zorrotza egin zioten gazteriari. Orain, jauzi askoz handiagoa

eman, eta gizartearen kontraesan eta itxurakeria azaleratzeaz gain, konposizio, instrumentazio eta giro oso landuak dituen diskoa egin dute. Metal oinarrien gainetik salto eginda, post-hardcorearen erreka zabaletan igeri egin eta doinu eta melodia oso irekietara itsasoratu dira; betiko moduan, umiltasunez baina emaitza oso txukunarekin.

<http://angerweb.net>

Arkaitz Biain - Anger

«Denborarekin konturatzen zara gauzak bortizki esateko ez dela derrigorrezkoa kaña egitea»

Denbora luzea pasa da *Biluztu* kalera-tu zenutenetik. Ez zarete talde bezala "inor izango"...

Biluztu kaleratu eta gutxira bate-riak hainbat istripu izan zituen, eta ordezkoak probatu genituen. Gero- ra, taldekideok lanpetuta ibili gara. Sormen eta beharren arabera egiten ditugu diskoak, ez gara jendeari begira egoten. Dibertitzeko eta gure ideiak transmititzeko da taldea.

Hardcore eta post-hardcore giroetan gustura zaudete, baina hastapeneta- ko metala ez duzue erabat alboratu...

Beñat gitarra jotzailearekin ezin da [barrez] eta egia da oinarria badu- gula, baina hardcoreak gehiago era- kartzen gaitu. Hastapenetan ez nin- tzen metaleroa sentitzen, ezaugarri oso matxistak dituelako. Aldiz, hardcoreak bestelako ereduak ditu: autogestioa, eraikitzea, emozioa... **Zuen kantuek melodia eta indarraren arteko oreka dute. Natural iriteta da?**

Nahiko natural, baina oso gus- tuko dugu eta bila ere joaten gara. Hamabost urterekin musika gogo- rrak seduzitzen zaitu, baina gero konturatzen zara gauzak bortizki esateko ez dela derrigorrezkoa

kaña egitea. Horra hor Gose, esa- terako.

Zita eta liburuen erreferentzia asko daude diskoan. Irakurtzen ez duen herriak ez du ezer aldatuko?

Baliteke. Gai batzuen gainean jan- tzita egoten ez bagara, eta komunika- tzen ez badugu, jai daukagu herri bila- kaerarekin. Orain da garaia Euskal Herrian halako gaietan sakontzeko.

Zergatik disko arrosa?

Unai Bergara diseinugileak hala proposatu zigun eta aproposa iruditu

zitzagun. Anger-metal-beltza irudia- rekin apurtzeko batetik; eta seduk- zioaren gaiarekin ere oso ondo dato- rrelako bestetik.

Zer balore berreskuratu beharko lituz- ke gizarteak?

Gizarte hedonistan bizi gara, sakrifizio gabe plazera nahi dugu eta gozamena ez dugu helburu moduan ulertzen. Bestalde, kolektibotasuna landu behar dugu: uste dugu bakar- ka askeagoak garela, baina batuz gero gara libreagoak. ■

